

PO-PO-PO,
AUTOBUSEAN,
HAURRAK DATOZ,
NIRE ATZEAN.
ESKUAK DITUT BOLANTEAN,
BEGIAK JARRITA BIDEAN. ¹

¹ Beste gaia: GORPUTZA

**BIZIKLETA GAINEAN
BANOA BIDEAN,
HARRI BAT JO DUT
ETA JOAN NAIZ
AIREAN.** ²

² Oharra: olerkia esaten den bitartean, esaten dena keinuen bidez antzestu.

GURPIL, GURPIL BOROBIL,
HEGAZKINA ONDO DABIL;
LAINOAK HAIN DAUDE
HURBIL,
AIREAN HEGAN NABIL.
HEGAZKINA ONDO DABIL.
GURPIL, GURPIL BOROBIL. ³

³ *Haurtxoa Bi* liburua.

PINTTO PASEATZEN ARI DA.
SEMAFOROA IKUSI DU.
BERDEA!
LASAI-LASAI PASA DA.

PINTTO PASEATZEN ARI DA.
SEMAFOROA IKUSI DU.
GORRIA!
KONTUZ, KONTUZ, ZAUDE ERNE! ⁴

⁴ *Haurtxoa Bat* liburua.
Beste gaia: KOLOREAK

NIKOLAS MIKOLASEN
HEGAZKIN HORIAK
ERAMATEN DITU
ZERURA TXORIAK.⁵

⁵ *Haurtxoa Bat* liburua.

TRAKA, TRAKA, TRAKA, TRAKA,
TRAKA, TRAKATRAN,
SARTU NAIZ TRENEAN.

TREKE, TREKE, TREKE, TREKE,
TREKE, TREKETREN,
HASI NAIZ IBILTZEN.

TRIKI, TRIKI, TRIKI, TRIKI,
TRIKI, TRIKITRIN,
ZUBI GAINETIK.

TROKO, TROKO, TROKO, TROKO,
TROKO, TROKOTRON,
TUNELAK GABON.

TRUKU, TRUKU, TRUKU, TRUKU,
TRUKU, TRUKUTRUN,
IRITSIKO GAITUN. ⁶

⁶ Eskolaurreko Euskararen Programakuntza liburua.

Oharra: haurrak gelatik hartzerakoan erabili dezakegu.

Beste gaia:FONETIKA.